Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko irailaren 26a, osteguna — 184 — Jueves, a 26 de septiembre de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Alegiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen adierazpen estrategikoa.*

*1. Aurrekariak.*

Alegiako Udala 2014an hasi zen udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten eta tramitatzen. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei (HAPO) ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie; beraz, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak ezartzen duen prozeduraren eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenaren arabera, Alegiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion Erreferentziako Dokumentua egiteko, Planaren ingurumen ebaluaziorako.

2014ko abenduaren 16an eman zuen Erreferentziako Dokumentua Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako zuzendariak. Bertan, kontsultatutako administrazioek eta erakundeek emandako erantzunak adierazi ziren, eta Plana lantzean kontuan hartu beharreko ingurumeneko helburu estrategikoak eta jasangarritasun irizpideak ezarri ziren. Era berean, erreferentziako dokumentuan identifikatu ziren udalerriko interes bereziko baliabideak eta eremuak eta ingurumeneko arazoak; hainbat eremu azpimarratu ziren, jarduketa batzuk problematikoak edo onartezinak izan baitaitezke; kontuan hartu beharreko alderdien zerrenda bat egin zen; ingurumeneko jasangarritasunari buruzko txostenaren irismena zehaztu zen (21/2013 Legean, abenduaren 9koan, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoan erabilitako terminologiaren araberako ingurumeneko azterlan estrategikoa) eta HAPOren ingurumen ebaluazioan kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu batzuk identifikatu ziren.

2019ko maiatzaren 10eko idatziaren bidez, Alegiako Udalak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zion Udaleko Osoko Bilkurak HAPO behin-behinean onetsi zuela, espediente osoa bidali zuen eta HAPOren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egiteko eskatu zuen.

*2. Alegiako hiri antolamenduko plan orokorraren deskribapena.*

Alegiako HAPOren behin-behineko onespenaren dokumentuan proposatutako egiturazko antolamendua osatzen duten elementu nagusiak hauek dira:

- Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa.

* Hiri lurzoru gisa sailkatu dira gaur egun «urbanizaezin» gisa sailkatutako bi partzela, baina horiek jarduera industrial batek okupatzen ditu (A.U.17 Erbeta Industrialdea –7.133 $m^2$–) eta hirugarren sektoreko erabilerak eta bizitegi erabilerak, hurrenez hurren (A.U.16-Erbeta Iparra –6.787 $m^2$–). Halaber, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu dira Franconi Fundazioaren finkaren inguruko lurzoruak (A.U.19-Franconi –8.678 $m^2$–).Guztira, 26 hektarea erantsi zaizkio hiri lurzoruari edo urbanizagarriari.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Declaración ambiental estratégica del Plan General de Ordenación Urbana de Alegia.*

*1. Antecedentes.*

El Ayuntamiento de Alegia inició en 2014 la redacción y tramitación del Plan General de Ordenación Urbana del municipio. Los Planes Generales de Ordenación Urbana (PGOU) deben someterse a una evaluación ambiental estratégica ordinaria para su aprobación por lo que, conforme al procedimiento establecido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica, el Ayuntamiento de Alegia solicitó a la Dirección General de Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa la emisión del Documento de Referencia para la evaluación ambiental del Plan.

El documento de referencia fue emitido por la Directora de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas el 16 de diciembre de 2014 y en él se daba traslado de las respuestas recibidas de las administraciones y entidades consultadas, se fijaban los objetivos ambientales estratégicos y los criterios de sostenibilidad a considerar en la elaboración del Plan. Así mismo, en el documento de referencia se identificaban los recursos y espacios de especial interés y los problemas ambientales en el municipio, se señalaban ciertos ámbitos donde algunas actuaciones podrían ser problemáticas o inaceptables, se hacía una relación de los aspectos a considerar y se determinaba el alcance del informe de sostenibilidad ambiental (estudio ambiental estratégico conforme a la terminología utilizada en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental) y se identificaban otros aspectos relevantes a considerar en la evaluación ambiental del PGOU.

Mediante escrito del 10 de mayo de 2019, el Ayuntamiento de Alegia ha comunicado a la Dirección General de Medio Ambiente la aprobación provisional del PGOU por parte del Pleno Municipal, ha remitido el expediente completo y solicitado la emisión de la Declaración Ambiental Estratégica del PGOU.

*2. Descripción del Plan General de Ordenación Urbana de Alegia.*

Los principales elementos que conforman la ordenación estructural propuesta en el Documento de Aprobación Provisional del PGOU de Alegia son los siguientes:

- Clasificación y calificación de suelo.

* Se clasifican como suelo urbano dos parcelas actualmente clasificadas como «no urbanizable» pero que se encuentran ocupadas por una actividad industrial (A.U.17 Erbeta Industrialdea –7.133 $m^2$–) y por usos terciarios y residenciales respectivamente (A.U.16-Erbeta Iparra –6.787 $m^2$–). Así mismo, se clasifican como suelo urbanizable los suelos en torno a la finca de la Fundación Franconi (A.U.19-Franconi –8.678 $m^2$–). En total, se añaden, 26 hectáreas al suelo urbano o urbanizable.

EK\CV GAO-I-2019-06000

* Hirigintza garapenerako eremu hauek finkatu dira: Bazurka, Erbeta Industrialdea (Ampisa), Erbeta Hegoa, Alde Zaharra, Larraitz Ekialdea eta Mendebaldea, Fabrensa (hegoaldea), Errota-Industrialdea (Becker) eta Beistin. Aurreko hirigintza eremuetatik I-2 Becker eremua aldatu da soilik, A.U.-12 Errota Industrialdea izena baitu.

* Parkeko, Kiroldegiko, Eskolako eta Hilerriko ekipamendu publikoen eremuak finkatu egin dira.

* Orendain eta Errota eremuak gaur egungo egoeran mantendu dira, eta baztertu egin dira indarrean dauden plangintzako Arau Subidiarioetan ezarritako handitze proposamenak.

* Bizitegi garapena bi hiri eraldaketa eragiketatan zehaztu da Hegoalde eta Fabrensa II eremuetan (iparraldea).

* Erbeta Iparra eremua hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetara bideratu da.

* Zuzkidura Sistema Orokorretan sartu da Franconi eremua lurzoru urbanizagarrian.

* Espazio Libreen Sistema Orokorrean sartu dira hilerri zaharra eta hilerriaren eta Amezketa ibaiaren gaineko zubi zaharraren arteko lurrak, lurzoru urbanizaezinean.

* Zerbitzu publikorako gune bat ezarri da Amezketa ibaiaren eskuineko ertzean zehar; horrela, batu egingo dira Kiroldegia, Franconi, eta hilerri zaharraren inguruko espazio libreen eremu berria.

• Bizitegi garapena.

* HAPOk 134 etxebizitza berrirentzako bizitegi edukiera ezarri du, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) formula aplikatzetik lortutako kuantifikazioarekin bat datorrena; izan ere, formula hori aplikatuta 80 eta 177 etxebizitzako bitartea lortzen da.

* Bizitegi garapen berriak herria eraldatzeko eta berroneratzeko jarduketetan oinarrituta prestatu dira, H.E.6-Hegoalde (30 etxebizitza) eta H.E.18 Fabrensa II (104 etxebizitza); hori dela eta, azken eremu honetan gaur egun dagoen jarduera industriala Bazurka eremura lekualdatuko da.

* Erabilera mistoak sustatuko dira, bizitegi erabilerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoen antolamenduarekin.

* Alegiako Alde Zaharreko ondare eraikia berriz aktibatuko da (etxebizitza hutsen indize handia dago), Birgaitzeko Plan Berezia berrikusita.

• Jarduera ekonomikoak.

* Eremu hauek finkatu dira: HE-11 Fabrensa I –hegoaldea–, HE-12 Errota-Industrialdea (Becker) eta HE-17 Erbeta-Industrialdea (Ampisa).

* HE-15 Bazurka eremu industrialeko eraikuntza aurreikuspenak garatuko dira (indarrean dagoen Plan Partziala); bertan, gaur egun Fabrensan instalatuta dagoen jarduera ezarri nahi da.

* AU-16 Erbeta-Iparra eremua mugatu da, hirugarren sektoreko jarduerak garatzeko (ostatu turistikoak, ostalaritza, merkataritza, ...).

• Bide azpiegiturak.

* Aralar Bidearen luzapenaren eta GI-2133 errepidearen arte lotura hobetzea.

* Aralar Bideko bidegintza hobetzea; izan ere, kalearen sekzioa eta trazadura egokituko dira ibilgailuen, oinezkoen eta bizikleten zirkulaziorako (bidegorri berri bat eraikiko da ibilgailuen bidearen eta espaloiaren artean).

* GI-2131 (Bidebarrieta-Erbeta) errepidearen zeharbidea hobetzea Bazurkarako sarbidearekin duen bidegurutzeraino, gaur egungo galtzadan oinezkoentzako pasabidea ezarriz (espaloiak).

* Erbetatik, Bazurka eremura sartzeko trazadura hobetzea eta galtzada handitzea eta oinezkoentzako espaloia ezartzea.

* Se consolidan los ámbitos de desarrollo urbanístico de Bazurka, Erbeta Industrialdea (Ampisa), Erbeta Hegoa, Alde Zaharra, Larraitz Ekialdea y Mendebaldea, Fabrensa (sur), Errota-Industrialdea (Becker) y Beistin. De los anteriores ámbitos urbanísticos únicamente se modifica la del Área I-12 Becker que pasa a denominarse A.U.-12 Errota Industrialdea.

* Se consolidan los ámbitos de equipamiento público de Parkea, Kiroldegia, Eskolak e Hilerria.

* Los ámbitos Orendain y Errota se mantienen en su estado actual, descartando las propuestas de ampliación establecidas en las vigentes Normas Subsidiarias de planeamiento.

* El desarrollo residencial se concreta en dos operaciones de transformación urbana en Hegoalde y Fabrensa II (norte).

* La Zona de Erbeta Iparra se destina para actividades económicas terciarias.

* Se incorporan al conjunto de Sistemas Generales Dotacionales, el ámbito Franconi, en suelo urbanizable.

* Se incluye en el Sistema General de Espacios Libres, el antiguo cementerio y los terrenos situados entre éste y el antiguo puente sobre el río Amezketa, en suelo no urbanizable.

* Se configura un espacio de servicio público a lo largo de la margen derecha del río Amezketa, uniendo las zonas de Kiroldegia, Franconi, y el nuevo ámbito de espacios libres en torno al antiguo cementerio.

• Desarrollo residencial.

* El PGOU establece una capacidad residencial de 134 viviendas nuevas, acorde con la cuantificación derivada de la aplicación de la fórmula de las Directrices de Ordenación del Territorio de la CAPV (DOT), de cuya aplicación se obtiene una horquilla de entre 80 y 177 viviendas.

* Los nuevos desarrollos residenciales se planean en base a actuaciones de transformación y regeneración urbana, en el ámbito H.E.6-Hegoalde (30 viviendas) y H.E.18 Fabrensa II (104 viviendas), trasladando la actividad industrial existente en este último ámbito al área de Bazurka.

* Promoción de usos mixtos, mediante la ordenación de actividades económicas compatibles con el uso residencial.

* Reactivación del patrimonio edificado del Casco Antiguo de Alegia (con un importante índice de vivienda desocupada), mediante la revisión del Plan Especial de Rehabilitación.

• Actividades económicas.

* Se consolidan los ámbitos industriales HE-11 Fabrensa I –sur–, HE-12 Errota-Industrialdea (Becker) y HE-17 Erbeta-Industrialdea (Ampisa).

* Desarrollo de las previsiones edificatorias (Plan Parcial vigente) del ámbito industrial HE-15 Bazurka, donde se pretende ubicar la actividad actualmente instalada en Fabrensa.

* Delimitación del ámbito AU-16 Erbeta-Iparra, para el desarrollo de actividades terciarias (alojamiento turístico, hostelería, comercio, ...).

• Infraestructuras viarias.

* Mejora del enlace entre la prolongación de Aralar Bidea y la GI-2133.

* Mejora de la vialidad en Aralar Bidea, adaptando la sección y trazado de la calle para el tráfico rodado, peatonal y ciclista (construcción de un nuevo Bidegorri entre el vial rodado y la acera).

* Mejora de la travesía Urbana de la GI-2131 (Bidebarrieta-Erbeta) hasta el cruce con el acceso a Bazurka, incorporando el tránsito peatonal (aceras) a la calzada existente.

* Mejora del trazado y ampliación de calzada y acera peatonal del vial de acceso a la zona de Bazurka, desde Erbeta.

EK\CV GAO-I-2019-06000

* N-1 trazadura eraberritzea (gaur egun Tolosa-Hegoalderako eta Alegiarako sarbideen artean banatuta dago); izan ere, goiko galtzada handituko da zirkulazioaren bi norabideetarako eta lehengo GI-2131 trazadura berreskuratuko da (Tolosaldea LPPn aurreikusitako jarduketa).

• Lurzoru urbanizaezineko ingurune fisikoa.

* Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurraldeko Plan Sektorialaren zonakatzea onartu da, baita ingurumeneko hainbat xedapen arauemailek zehaztutako baldintzatzaile gainjarriak ere. Antolamendu kategoria hauek onartu dira:

— Basogunea eta trantsizioko landa paisaia. Horiek mugatu dira beren azalerak tartekatuz eremu hauetan: Aldabatxikimendiaren hego-ekialdeko hegalaren beheko gunean eta Langaurre azpitik; Alegiako udalerrian Oria ibaiaren eskuineko ertza eta Amezketa ibaiaren ezkerreko ertza mugatzen duten hegaletan (Larunbesoro-Lugarragatxiki gaina); eta Aristizabal, Pagomode eta Mizpira gainako zonan.

— Nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa eta balio estrategiko handiko landazabala. Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurraldeko Plan Sektorialaren zonakatzea errespetatuz, Oria ibaiaren ibarrean (Osiribar eta Berasibitxiki), Elorrimendin, Amezketa ibaiaren ibarrean (Errotalde-hilerria, Txaralde) daude.

— Babes berezia. Aldabatxikimendiko Kirrimisti Errekako goiko aldeko basoguneak eta Oindoerreka, Aristizabalgoerreka eta Olabaso errekako basoak.

— Gainazaleko urak babestea. Zonakatzean jaso dira udalerriko ibaien eta erreken ibilguak eta marjinen mugak eta hirigintzako osagaia zonakatzeko baldintzak.

— Ingurumena hobetzea. Aldaba Txikiminediko Erabilera Publikoko ia Mendi guztia eta Amezketa eta Arterreka ibaien ertzak.

* Baldintzatzaile gainjarri hauek zehaztu eta aplikatu dira:

— Higa daitezkeen eremuak.

— Akuiferoen kalteberatasuna.

— Interes naturalistikoa.

— Oria Garaiko KBE.

— Erabilera Publikoko Mendia.

— Paisaia bereziak eta bikainak.

— Korridore ekologikoak.

— Flora mehatxatua.

— Kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruak.

— Uholde arriskuko orbanak eta emari lehenetsiko guneak.

* Aldabatxiki 2005.1 Erabilera Publikoko Mendiaren Antolamendu Planeko irizpideak eta helburuak onartu dira. Eremu horrek udalerriko azaleraren ia herena hartzen du.

* Langaurreko aisialdi gunea finkatzea.

* Aisialdiari lotutako berdegune berri bat planteatu da, hegoaldetik dauden sarbideak antolatu eta duintzeko helburuarekin, hilerri zaharraren eta Amezketa ibaiaren gaineko lehengo zubiaren inguruan.

*3. Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eta egindako Ingurumen Ebaluazioaren ingurumen balorazioa.*

3.1. Alegiako HAPOko ingurumen alderdien integrazioaren balorazioa.

Alegiako HAPOri 21/2013 Legean, abenduaren 9koan, ingurumen ebaluazioari buruzkoan zehaztutako ingurumeneko ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura egin behar zaio. Ebaluazio horretan, hiri antolamendua baldintza dezaketen ingurumeneko faktoreak kontuan hartu dira HAPOrekin ezarriko den antolamendua zehazteko prozesuaren lehenengo faseetatik.

* Reforma del trazado de la N-1 (tramo desdoblado actualmente entre los accesos Tolosa-Sur y Alegia), ampliando la calzada superior para los dos sentidos de tráfico y recuperando el antiguo trazado de la GI-2131 (actuación prevista en el PTP Tolosaldea).

• Medio físico suelo no urbanizable.

* Se asume la zonificación del Plan Territorial Sectorial Agroforestal, así como de los condicionantes superpuestos definidos por las diferentes disposiciones normativas de carácter ambiental. Se adoptan las siguientes categorías de ordenación:

— Zona Forestal y paisaje rural de transición. Se delimitan intercalándose sus superficies en la zona inferior de la ladera sureste de Aldabatxiki-mendi y por debajo de la zona de Langaurre, en las laderas que delimitan en el Término Municipal de Alegia las riberas derecha del río Oria e izquierda del río Amezketa (Larunbesoro-Lugarragatxiki gaina) y la zona de Aristizabal, Pagomode y Mizpira gaina.

— Agroganadera y campiña de alto valor estratégico. Respetando la zonificación del Plan Territorial Sectorial Agroforestal, se sitúan en la vega del río Oria (Osiribar y Berasibitxiki), Elorrimendi, vega del río Amezketa (Errotalde-cementerio, Txaralde).

— Especial protección. Las zonas forestales en la zona alta de Kirrimisti Erreka en Aldabatxikimendi y los bosques de las Oindoerreka, Aristizabalgoerreka y Olabaso erreka.

— Protección de las aguas superficiales. La zonificación recoge los cauces de los ríos y arroyos del municipio y la delimitación de los márgenes y condiciones de zonificación de su componente urbanística.

— Mejora ambiental. La práctica totalidad del Monte de Utilidad Pública de Aldaba Txikiminedi y las riberas del río Amezketa y Arterreka.

* Se definen y aplican los siguientes condicionantes superpuestos:

— Áreas erosionables.

— Vulnerabilidad de acuíferos.

— Interés naturalístico.

— ZEC Alto Oria.

— Monte de Utilidad Pública.

— Paisajes singulares y sobresalientes.

— Corredores ecológicos.

— Flora Amenazada.

— Suelos con actividades o instalaciones potencialmente contaminantes.

— Manchas de inundabilidad y zonas de flujo preferente.

* Se asumen los criterios y objetivos del Plan de Ordenación del Monte de Utilidad Pública Aldabatxiki 2005.1, que abarca casi una tercera parte de la superficie municipal.

* Consolidar el área recreativa de Langaurre.

* Se plantea una nueva zona verde, ligada al ocio, con el objeto de ordenar y dignificar los accesos desde el sur, en torno al Antiguo Cementerio y el Antiguo Puente sobre el río Amezketa.

*3. Valoración ambiental del PlanGeneral de Ordenación Urbana y de la evaluación ambiental realizada.*

3.1. Valoración de la integración de los aspectos ambientales en el PGOU de Alegia.

El PGOU de Alegia se encuentra sometido al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria definido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental. En el marco de dicha evaluación, los factores ambientales que pueden condicionar la ordenación urbana se han considerado desde las primeras fases del proceso de definición de la ordenación a establecer con el PGOU.

EK\CV GAO-I-2019-06000

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak egindako Erreferentziako Dokumentuak –edo irismenekoak– zehazten ditu HAPO lantzean kontuan izan beharreko ingurumeneko alderdiak, baita ingurumeneko jasangarritasunari buruzko txostenak edo ingurumeneko azterlan estrategikoak izan behar zituzten edukiak ere. HAPO behin-behinean onesten duen dokumentua eta Erreferentziako Dokumentuan adierazitako ingurumeneko alderdien txertatze maila aztertu ondoren, egiaztatu da, oro har, antolamenduak era egokian integratu dituela ingurumeneko alderdi horiek, hala udalerriko interes bereziko baliabideak eta eremuak babesteko kasuan nola hiri antolamenduan eta lurzoruaren sailkapenean ingurumeneko jasangarritasun irizpideak ezartzeko kasuan.

Alegiako HAPOren formulazioan ezarritako irizpideen artean nabarmendu egin behar da lurzoru urbanizagarri berria sailkatu baino lehen, lehendik eraldatutako lurzoruen okupazioa agortzeko printzipioa aplikatzeko egin den apustua, zeren HAPOn planteatzen da hirigintzako garapen berrietarako lurzorua lortuko dela lehendik urbanizatuta edo degradatuta dauden lurzoruen erabilera aldatuta. Ildo horretan, hiri lurzoru berri gisa sailkatu dira soilik beren ezaugarriak direla eta urbanizaezin sailkapenarekin bateragarriak ez direnak; izan ere, horiek lehendik okupatuta daude jarduera edo erabilera industrialekin (H.E.17-Erbeta Industrialdea), edo hirugarren sektoreko edo bizitegien erabilerekin (H.E.16-Erbeta Iparra). Beraz, lurzoru urbanizagarriaren sailkapena 8.678 $m^2$-ko partzela batera mugatzen da, eta partzela hori zuzkidura ekipamenduetara bideratzea aurreikusi da.

HAPOn jasotako antolamenduak aurreikusten du udalerriko hiri lurzorua eta urbanizagarria, guztira, 2,26 ha-rekin handitzea. Hektarea horietan, batez ere, lehendik okupatuta dauden hiri erabilerak daude edo nolabaiteko degradazioa duten hektareak dira edo ingurumen balio esanguratsurik ez duten hektareak dira; beraz, hazkundea neurtua da eta jasangarritasun irizpideetara egokitzen da.

Bestalde, Erreferentziako Dokumentuak identifikatu zituen hiru eremutan, alternatiba batzuek ingurumenaren ikuspuntutik problematikoak edo onartezinak izan zitezkeen hirigintza jarduketak planteatzen zituzten. Behin-behinean onetsitako dokumentuan jasotako antolamenduak erabat baztertu du horietako bat –AIU 19 Osiribar urbanizaezin gisa mantendu da– eta saihestu egin du eraikuntza berriak egitea beste bi eremu problematikoetan –aurrez AIU 17 Begiristain Berri izendatutakoan, zeren bertako hego-ekialdeko muturra orain A.U.12–Errota Industrialdea, eta AIU 16 Erbeta Iparrako erabilera publikoko eremu gisa esleitu da, eta eremu horietan lehendik dauden eraikinak finkatu dira baina ez da eraikuntza berririk egingo; beraz, gaur egungo antolamendua onargarria da hiri jasangarritasunaren ikuspuntutik.

HAPOn ingurumeneko arazoak kontuan hartzeari dagokionez, kontuan izan dira antolamendua baldintza dezaketen ingurumeneko faktore nagusiak. Faktore horiek udalerriko hiriguneetan eta urbanizagarrietan gehienbat hauek izaten dira: uholde arriskua, zarata eta kutsa dezaketen lurzoruak egotea. Halere, zenbait hutsune detektatu dira faktore horiek eta araudi orokorreko beste alderdi batzuk eta hainbat arlotako arau partikularrak txertatzean, baita arazo horiek minimizatzeko hartuko diren neurrien deskribapenean ere. Era berean, hobetu egin behar da, hirigintza araudiaren ikuspuntutik, ingurumeneko azterlan estrategikoak adierazitako ingurumena integratzeko neurri batzuen ezarpena.

Bestalde, HAPOk klima aldaketa ez du oso kontuan izan eta ingurumeneko azterlan estrategikoan aipamen orokor batzuk egin ditu soilik. EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa (2019. Ihobe) azterlanaren arabera, Alegiak klima aldaketaren aurrean dituen kalteberatasun eta arrisku nagusiak dira pertsonen osasunean bero boladek duten inpaktua eta hiri inguruneko ibaien uholdeak.

El Documento de Referencia –o de alcance– emitido por la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas determinaba los aspectos ambientales a tener en cuenta en la elaboración del PGOU, así como los contenidos que debía tener el informe de sostenibilidad ambiental o estudio ambiental estratégico. Analizado el Documento de Aprobación Provisional del PGOU y el grado de incorporación de los aspectos ambientales señalados en el Documento de Referencia, se comprueba que, en general, la ordenación ha integrado adecuadamente dichos aspectos ambientales, tanto en relación a la protección de los recursos y espacios de especial interés presentes en el municipio, como en la asunción de criterios de sostenibilidad ambiental en la ordenación urbana y la clasificación del suelo.

Entre los criterios asumidos en la formulación del PGOU de Alegia hay que destacar la apuesta por aplicar el principio de agotar la ocupación de los suelos ya transformados antes de clasificar nuevo suelo urbanizable, ya que la obtención de suelo para nuevos desarrollos urbanísticos se plantea en el PGOU principalmente mediante el cambio de uso de suelos ya urbanizados o degradados. En este sentido, únicamente se clasifican como nuevos suelos urbanos aquellos que por sus características, no son compatibles con la clasificación de no urbanizable por encontrarse ya ocupados por actividades o usos industriales (H.E.17-Erbeta Industrialdea), o usos terciarios y residenciales (H.E.16-Erbeta Iparra). La clasificación de suelo urbanizable se limita a una parcela de 8.678 $m^2$ que se prevé destinar a equipamientos dotacionales.

En total, la ordenación adoptada en el PGOU prevé el incremento del suelo urbano y urbanizable del municipio en un total de 2,26 ha, en su mayor parte, previamente ocupadas por usos urbanos o que presentan cierto grado de degradación y que no cuentan con valores ambientales significativos, por lo que se puede considerar un crecimiento contenido y ajustado a los criterios de sostenibilidad.

Por otra parte, el Documento de Referencia identificaba tres ámbitos donde algunas de las alternativas planteaban actuaciones urbanísticas que podrían ser problemáticas o inaceptables desde el punto de vista ambiental. La ordenación finalmente adoptada en el Documento de Aprobación Provisional descarta totalmente una de ellas –AIU 19 Osiribar, que se mantiene como no urbanizable– y evita nuevas edificaciones en los otros dos ámbitos problemáticos –la previamente denominada AIU 17 Begiristain Berri, cuyo extremo sureste se asigna ahora como área de uso público del A.U.12–Errota Industrialdea, y AIU 16 Erbeta Iparra, donde se consolidan los edificios existente pero no se contemplan nuevas edificaciones, de modo que la ordenación actual es asumible desde el punto de vista de la sostenibilidad urbana.

En cuanto a la consideración de los problemas ambientales en el PGOU, se han tenido en cuenta los principales factores ambientales que pueden condicionar la ordenación, que en las zonas urbanas y urbanizables del municipio se concretan principalmente en el riesgo de inundación, el ruido y presencia de suelos potencialmente contaminados. Sin embargo, se detectan ciertas lagunas concretas en la incorporación de estos y otros aspectos a la normativa general y las normas particulares de los diferentes ámbitos, así como en la descripción de las medidas a tomar para la minimización de dichos problemas. Así mismo, debe mejorarse la asunción, desde la normativa urbanística, de algunas de las medidas de integración ambiental aportadas desde el estudio ambiental estratégico.

Por otra parte, la consideración del cambio climático en el PGOU ha sido escasa y se limita a algunas referencias generales en el estudio ambiental estratégico. Según el estudio Evaluación de la vulnerabilidad y riesgo de los municipios vascos ante el cambio climático (2019. Ihobe) la principal vulnerabilidad y los principales riesgos de Alegia frente al cambio climático derivan de impacto de las olas de calor sobre la salud humana y de las inundaciones fluviales sobre el medio urbano.

EK\CV GAO-I-2019-06000

Azkenik, erreferentziako dokumentuan adierazi bezala, HAPO ingurumena hobetzeko tresna izateko printzipioa kontuan hartuta, HAPOn txertatu beharko lirateke, eremu degradatuak zaharberritzeko proiektuen bidez, udalerriko ingurumena hobetzeko ekintza positiboaren neurri zehatzak.

3.2. Egindako kontsultatik eskuratutako txostenetan adierazitako alderdiekiko HAPOk duen egokitasuna.

Kontsulten fasean lau erakundetatik jaso ziren txostenak. Txostenetako edukia Erreferentziako Dokumentuaren 2. atalean adierazi zen. Txostenetan adierazitako alderdiek HAPOn izan duten integrazio maila hau izan da:

HAPO neurri handi batean egokitu egin da Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren txostenean adierazietako irizpideetara. Osiribar eremuaren garapena baztertu da. Txostenean adierazitakoaren arabera, planteatutako jarduketetatik jarduketa horrek sortuko zuen inpakturik handiena ingurunean. Era berean, txosten honetan adierazitakoari jarraiki, «Araxes, Jazkugañe eta Basabe haranak» intereseko gunea txertatu da babes bereziko kategorian, korridore ekologikoen Sarea txertatu da hiri antolamenduari gainjartzen zaion baldintzatzaile gisa eta txostenak biodibertsitatea babesteko eskaintzen zituen irizpide gehienak onartu dira.

HAPOren araudiak udalerriko kultura ondarearen katalogo bat du, baita ondare hori osatzen duten elementuak babesteko arauak ere. Horrela, bete egin da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritzaren txostenetan eskatutakoa, nahiz eta katalogoan ez diren jaso azken honek iradokitako elementu guztiak.

Ihobek egindako txostenean adierazitakoaren arabera, HAPOk kontuan hartu du kutsa dezaketen lurzoru gisa inbentariatutako lurzoruak daudela. Ildo horretan, HAPOren hirigintzako araudiak baldintzatzaile gainjarri bat onetsi du «kutsa dezaken lurzoruetarako» eta 79. artikuluak lurzoru horien araubide orokorra zehazten du; hala, adierazten du, besteak beste, lurzoruaren kalitatea deklaratzeko dagokien espedientearen xede izango direla.

Bestalde, Hasierako Onespenaren Dokumentua onetsi ondoren, Alegiako Udalak eragiten dien erakundeei kontsulta egin die eta jendaurrean ipini du. Kontsulta horien ondorioz, ez da izan ingurumeneko inpaktuen aldakuntza esanguratsurik ekar zezakeen aldaketarik, zeren ez dute aldatu HAPOn planteatutako egiturazko antolamendua ezta ingurumena integratzeko neurririk ere.

Halere, alegazioetako bat ingurumenari buruzkoa da eta Becker enpresaren jarduera industrialak sortzen dituen molestiak –zaratarengatik eta atmosferara kutsatzaileak isurtzeagatik– aipatzen ditu. Udalak gaitzetsi egin du alegazio hori eta argudiatu du egindako zonakatze akustikoak sektore akustikoetarako kalitatearen helburuak ezartzen dituela eta jardueraren ingurumen alderdia kontrolatzeko eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokiola; hori dela eta, alegazioa administrazio horri jakinarazi zion.

3.3. Ingurumeneko Azterlan Estrategikoa baloratzea eta Erreferentziako Dokumentuko edukiak txertatzea.

Alegiako HAPO behin-behinean onesten duen dokumentuak Ingurumeneko Azterlan Estrategiko (IAE) bat du eta horren edukiak egokitu egiten dira legezko arau hauek eskatutako edukietara: 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenetarako ingurumenaren ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenaren II. eranskinekoak, eta 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, ingurumeneko azterlan estrategikoetarako ingurumen ebaluazioari buruzkoaren IV. eranskinekoak. IAE egiteko, kontuan izan da, halaber, Ingurumeneko eta

Por último, atendiendo al principio de contemplar el PGOU como instrumento de mejora ambiental expresado en el documento de referencia sería deseable la incorporación al PGOU de medidas concretas de acción positiva para la mejora del medio ambiental del municipio a través de proyectos de restauración de espacios degradados.

3.2. Adecuación del PGOU a los aspectos señalados en los informes provenientes de las consultas efectuadas.

Durante la fase de consultas se recibieron informes de un total de cuatro entidades. El contenido de los informes quedó expuesto en el apartado 2 del Documento de Referencia. El grado de integración en el PGOU de los aspectos señalados en los informes es el siguiente:

El PGOU se adecua en buena medida a los criterios expuestos en el informe de la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco. Se ha descartado el desarrollo del ámbito Osiribar, actuación de mayor impacto sobre el medio natural de entre las planteadas a tenor de lo expresado en el informe. Asimismo, siguiendo lo señalado en este informe, se ha incluido el espacio de interés «Valles de Araxes, Jazkugañe y Basabe» en la categoría de Especial protección, se ha incluido la Red de corredores ecológicos como condicionante superpuesto a la ordenación urbanística y se han asumido la mayor parte de los criterios que para la protección de la biodiversidad aportaba el informe.

La normativa del PGOU incluye un catálogo del patrimonio cultural del municipio y unas normas de protección de los elementos que conforma el mismo, cumpliendo de este modo lo solicitado en los informes de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco y de la Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, si bien no recoge en el catálogo la totalidad los elementos sugeridos por esta última.

De acuerdo con lo señalado en el informe emitido por Ihobe, el PGOU tienen en consideración la existencia de suelos inventariados como potencialmente contaminados. En este sentido, la normativa urbanística del PGOU adopta un condicionante superpuesto para «suelos potencialmente contaminados» y el artículo 79 determina el régimen general de estos suelos, señalando que serán objeto de, entre otros extremos, el correspondiente expediente de declaración de la calidad del suelo.

Por otra parte, una vez aprobado el Documento de Aprobación Inicial, el Ayuntamiento de Alegia ha consultado sobre el mismo a las entidades afectadas y ha abierto periodo de exposición al público. Como resultado de dichas consultas no se han producido modificaciones que pudieran derivar en una variación significativa de los impactos ambientales, ya que no han supuesto alteración de la ordenación estructural planteada en el PGOU ni del conjunto de las medidas de integración ambiental.

Sin embargo, una de las alegaciones tiene un marcado carácter ambiental y se refiere a las molestias ocasionadas –por ruido y por emisión de contaminantes a la atmósfera– por la actividad industrial de la empresa Becker. El Ayuntamiento desestima dicha alegación, argumentando que la zonificación acústica realizada establece objetivos de calidad para los sectores acústicos y que la competencia para el control ambiental de la actividad corresponde al Gobierno Vasco, dando traslado de la alegación a dicha administración.

3.3. Valoración del Estudio Ambiental Estratégico e incorporación de los contenidos del Documento de Referencia.

El Documento de Aprobación Provisional del PGOU de Alegia contiene un Estudio Ambiental Estratégico (EsAE) cuyos contenidos se ajustan a los exigidos en el anexo II del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica para los informes de sostenibilidad ambiental, y los que establece el anexo IV de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental para los estudios ambientales estratégicos. Para la elaboración del EsAE se ha tenido en cuenta, asimismo, el Documento de

EK\CV GAO-I-2019-06000

Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak egindako Erreferentziako Dokumentua. Halere, Azterlaneko zenbait alderdi osatu edo garatu egin beharko lirateke egindako ingurumen ebaluazioa hobetzeko eta planak ingurumenean sortuko dituen ondorio negatiboak minimizatzeko eta udalerriko ingurumen baldintzak hobetzea lortzeko. Azterlanaren atal bakoitzari dagokionez, hau aipatu behar da:

1. Ingurumeneko Azterlan Estrategikoak identifikatu egiten ditu ingurumena babesteko helburuak eta justifikatu egin du zer eratara hartu diren kontuan HAPO formulatzerakoan. Era berean, Planak berarekin erlazioa duten planekin eta programekin duen erlazioa deskribatzen du.

2. Udalerriaren karakterizarioaren atalak identifikatu eta deskribatu egiten ditu ingurumeneko elementu nabarmenenak eta, oro har, nahikoa da ebaluazio egoki bat egiteko. Halere, Erreferentziako Dokumentuan eskatutako edukiak osatzeko, diagnostikoak azterketa hauek izan beharko lituzke:

a. Oria eta Amezketa ibaietan Alegiako hirigunearen inguruan tokian bertan berrikustea eta eguneratzea uhalde enaren (Riparia riparia) populazioaren inbentarioa.

b. Herrian garatzea korridore ekologikoen sarea, tokiko eskalan identifikatuta konektagarritasunerako elementu garrantzitsuak –tokiko azpiegitura berdea–.

c. Nekazaritzaren jarduera mantentzeko lurzoru garrantzitsuak diagnostikatzea, kontuan izanda ustiapen garrantzitsuenak, balio estrategiko handiko lurzoruez haratago.

3. Alternatibak aztertu dira hirigunea okupatzeko hiru eredutik abiatuta –0 alternatiba: 1996ko arau subsidiarioetan oinarritutako gaur egungo antolamendua mantentzen du; 1. alternatiba: lurzoru gehiago okupatzen du eta etxebizitzen kopurua handiagoa du; eta 2. alternatiba: HAPOk proposatutakoa da– eta konparatu egiten ditu kontuan izanda ingurumeneko faktore esanguratsuenak, eta ondorioztatu da 2. alternatibak 1. alternatibak baino lurzoru gutxiago okupatzen duela, faunari eta florari gutxiago eragiten diela eta uholde arriskurako esposizio txikiagoa duela.

Azterlanak ez ditu aztertu hautatutako garapen eremu bakoitzeko eraikingintzako antolamendu, diseinu edo tipologiako aukera desberdinak.

4. Ingurumeneko inpaktuak identifikatzen eta baloratzen dituen atalak era egokian adierazten ditu aurreikus daitezkeen zuzeneko inpaktu gehienak eta Natura 2000 Sarean –Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120005)– izango diren ondorioak ebaluatzeko atal espezifiko bat du, araudian eskatzen den bezala. Zeharkakogoak diren ingurumeneko ondorioen (hiriko eta hiriarteko mugikortasuneko aldaketen, ur zikinak areagotzearen edo erabileren eta jardueren erregulazioa aldatzetik etorritako inpaktuen) identifikazioa eta balorazioa gutxiago garatu dira eta, halaber, ez du azterketarik HAPOk klima aldaketan –arintzean– izango duen eraginari buruz edo klima aldaketaren aurrean Planaren proposamenak egokitzeko mailari buruz.

5. Ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenean jasotzen diren ingurumenaren integrazio neurriak egokiak dira, nahiz eta horietako asko orokorregiak diren eta ez diren zehaztu beren karakterizazioari eta aplikatzeko moduari dagokionez, eta ez dira zehaztu, halaber, HAPOn aurreikusitako hainbat jarduketetan horiek nahitaez ezartzeari dagokionez ere. Era berean, zenbait alderdi, esaterako, kalitate akustikoa –zarataren aurkako babes berezi gisa izendatu behar diren eremuak, hartu behar diren neurri zehatzak– eta lurzoruaren kalitatea hobetzeko neurriak –eremu hauetan lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazioa beharko da erabilera aldatu edo jarduketak egin baino lehen– gehiago zehaztu behar dira.

Referencia emitido por la Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas. Sin embargo, ciertos aspectos concretos del Estudio deberían ser completados o desarrollados para optimizar la evaluación ambiental realizada y la minimización de los efectos ambientales negativos del plan y lograr mejorar las condiciones ambientales del municipio. Respecto a cada uno de los apartados del estudio cabe realizar las siguientes consideraciones:

1. El Estudio Ambiental Estratégico identifica los objetivos de protección ambiental y justifica de qué manera se han tenido en cuenta en la formulación del PGOU. Describe asimismo la relación del Plan con los planes y programas que guardan relación con el mismo.

2. El apartado de caracterización del municipio identifica y describe los elementos ambientales más relevantes y, en general, es suficiente para realizar una adecuada evaluación. Sin embargo, para completar los contenidos solicitados en el Documento de Referencia, el diagnóstico debería incorporar los siguientes análisis:

a. Revisión sobre el terreno y actualización de inventario de la población de avión zapador (Riparia riparia) en los ríos Oria y Amezketa en torno al casco urbano de Alegia.

b. Desarrollo, a nivel local, de la red de corredores ecológicos mediante la identificación de los elementos relevantes a escala local para la conectividad –infraestructura verde local–.

c. Diagnóstico de los suelos relevantes para el mantenimiento de la actividad agraria teniendo en cuenta las explotaciones más relevantes, más allá de los suelos de alto valor estratégico.

3. Se efectúa un análisis de alternativas a partir de tres modelos de ocupación del espacio urbano –Alternativa 0, consistente en el mantenimiento de la ordenación actual basada en las Normas Subsidiarias de 1996 y sus modificaciones; Alternativa 1, con una mayor ocupación de suelo y un número más elevado de viviendas y Alternativa 2, que constituye la propuesta del PGOU– y las compara teniendo en cuenta los factores ambientales más significativos, concluyendo que la Alternativa 2 genera una menor ocupación del suelo, un menor impacto sobre la fauna y la flora y una menor exposición al riesgo de inundación que la alternativa 1.

El estudio no entra a analizar diferentes opciones de ordenación, diseño o tipología de edificación en cada uno de los ámbitos de desarrollo seleccionados.

4. El apartado de identificación y valoración de impactos ambientales expone de manera adecuada la mayor parte de los impactos directos previsibles y cuenta con un apartado específico de evaluación sobre los efectos sobre la Red Natura 2000 –Zona Especial de Conservación Alto Oria (ES2120005)–, tal y como exige la normativa. La identificación y valoración de efectos ambientales de carácter más indirecto, como los cambios en la movilidad urbana e interurbana, incremento de aguas residuales o los impactos derivados de la modificación de la regulación de usos y actividades presenta un menor desarrollo y carece, así mismo, de análisis respecto a la incidencia del PGOU sobre el cambio climático –mitigación– o del grado de adaptación de las propuesta del Plan ante los efectos del cambio climático.

5. Las medidas de integración ambiental que se recogen en el informe de sostenibilidad ambiental son adecuadas, si bien muchas de ellas son excesivamente genéricas y adolecen de falta de concreción en cuanto a su caracterización y modo de aplicación, así como respecto al carácter preceptivo de su adopción en las distintas actuaciones previstas en el PGOU. Así mismo, ciertos aspectos como las medidas para mejorar la calidad acústica –zonas que se deban designar de protección acústica especial, medidas concretar que se deban adoptar– y calidad del suelo –ámbitos donde será necesaria la declaración de la calidad del suelo con carácter previo al cambio de uso o realización de actuaciones–, requieren de una mayor concreción.

EK\CV GAO-I-2019-06000

6. Ingurumenaren azterlan estrategikoan zehaztutako ingurumena zaintzeko programak ez dauzka planaren ingurumen eraginaren eta bilakaeraren segimenduan programa egingo dela eta efektiboa izango dela bermatzeko behar diren eduki gehienak. Azterlanak segimendu adierazle batzuen zerrenda eskaintzen du soilik eta ez ditu zehazten programa garatzeko gainerako edukiak, esaterako, egingo diren segimendurako eta kontrolerako jarduketak, kontrol horiek egiteko erantzukizuna eta maiztasuna, zer txosten egitea aurreikusten den, etab.

Azkenik, 211/2012 Dekretuko, urriaren 16ko 4. eta 6. artikuluetan ezarritakoa eta 3/1998 Legearen, otsailaren 27koaren 44.2. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar denez, eta kontuan izanda 22/2016 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, plan bat onartzeko eskumen nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiak duen kasuetan, ingurumen adierazpen estrategikoa (edo ingurumen memoria) egiteko organo eskuduna Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua izango da.

Hortaz, aurretik azaldutako guztiaren arabera, eta arau hauek betez: 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenaren 13. artikulua eta 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, ingurumen ebaluazioari buruzkoaren 25. artikulua foru diputatu honek Alegiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen adierazpen estrategiko hau ematen du, baldintza hauetan:

*Lehenengoa.* Ematea Alegiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Ingurumen Adierazpen Estrategiko hau –ingurumen memoria–.

*Bigarrena.* Ingurumen Adierazpen Estrategiko honen zehaztapenak Plana osatzen duten dokumentuetan dagokien ataletan txertatuko dira. Halaber, 211/2012 Dekretuaren, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenaren 4. apartatua betez, integrazio hori nola egin den adierazten duen dokumentu bat landu eta onetsi beharko da eta GFAren Ingurumen Zuzendaritza Nagusira igorri beharko da.

*Hirugarrena.* Alegiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta bere antolamendua garatzen duten planek zehaztapen hauek txertatu beharko dituzte:

1. HAPOri erantsi beharko zaizkio ingurumen integraziorako neurri hauek:

a. Kutsadura akustikoa: 213/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, EAEko hots kutsadurari buruzkoaren arabera, etorkizunean hirigintza garapen bat egitea, hirigintza kalifikazioak barne, aurreikusten zaien eremu akustikoek, dagokien hirigintzako eta ingurumeneko tramitaziorako, Inpaktu Akustikoaren Azterlan bat izango dute. Hala, azterlan horrek bilduko ditu zarataren mapen lanketa eta eremuko inpaktu akustiko globala aurreikusi ahal izateko ebaluazio akustikoak. Azken horiek, gutxienez, hauek guztiak jasoko dituzte:

i. Soinu iturrien azterketa bat.

ii. Alternatiben azterlana.

iii. Neurrien definizioa.

Antolamendu xehatua hiri antolamenduko plan berezi bati edo plan partzial bati lotzen bazaio–A.U.18 Fabrensa II, A.U.19 Franconi– azterlan akustikoa garapen planarekin batera egin ahal izango da. Antolamendu xehatua HAPOn ezartzen den eremuen kasuan –A.U.6 Hegoalde– azterlan hori HAPO behin betiko onetsi aurretik egin beharko da.

Bestalde, eremu edo sektore bakoitzeko hirigintzako arau partikularrek jasoko dituzte dagokien eremu akustikoa eta aplikatu beharreko kalitate akustikoaren helburuak. Helburu horiek ez badira betetzen, Zarataren Aurkako Babes Bereziko Eremu (ABBE) gisa deklaratu beharko da.

6. El programa de vigilancia ambiental definido en el Estudio ambiental estratégico carece de la mayor parte de los contenidos necesarios para garantizar su realización y efectividad en el seguimiento de la incidencia y evolución ambiental del plan. El Estudio únicamente aporta una lista de indicadores de seguimiento y no define el resto de contenidos para desarrollar el programa, como las actuaciones de seguimiento y controles que se van a realizar, la responsabilidad y periodicidad en la realización de dichos controles, los informes que se prevean emitir, etc.

Finalmente, resultando de aplicación lo dispuesto en los artículos 4 y 6 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, y el artículo 44.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, y teniendo en cuenta el Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, en aquellos casos en los que la competencia sustantiva para la aprobación de un plan resida en la Diputación Foral de Gipuzkoa, el órgano competente para la emisión de la declaración ambiental estratégica (o memoria ambiental) lo constituye el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas.

Por tanto, de acuerdo con todo lo anteriormente expuesto, y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 13 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas y en el artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, este Diputado Foral emite la presente Declaración Ambiental Estratégica del Plan General de Ordenación Urbana de Alegia en los términos siguientes:

*Primero.* Emitir la presente Declaración Ambiental Estrategia –memoria ambiental– respecto al Plan General de Ordenación Urbana de Alegia.

*Segundo.* Las determinaciones de esta Declaración Ambiental Estratégica se integrarán, en los apartados pertinentes de los documentos que componen el Plan. Asimismo, en cumplimiento del apartado 4 del artículo 13 del Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, se deberá elaborar y aprobar un documento, que se remitirá a esta Dirección General de Medio Ambiente de la DFG, en el que se refleje cómo se ha realizado dicha integración.

*Tercero.* El Plan General de Ordenación Urbana de Alegia y los planes que desarrollen su ordenación deberán e incorporar las siguientes determinaciones:

1. Deberán agregarse al PGOU las siguientes medidas de integración ambiental:

a. Contaminación acústica: Conforme al Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la CAPV, las áreas acústicas para las que se prevea un futuro desarrollo urbanístico, incluidos los cambios de calificación urbanística, deberán incorporar, para la tramitación urbanística y ambiental correspondiente, un Estudio de Impacto Acústico que incluya la elaboración de mapas de ruido y evaluaciones acústicas que permitan prever el impacto acústico global de la zona y que contendrán, como mínimo:

i. Un análisis de las fuentes sonoras.

ii. Estudio de alternativas.

iii. Definición de medidas.

En el caso de ámbitos en los que la ordenación pormenorizada se remita a un plan especial de ordenación urbana o plan parcial –A.U.18 Fabrensa II, A.U.19 Franconi– el estudio acústico se podrá realizar junto con el plan de desarrollo. En el caso de ámbitos en los que la ordenación pormenorizada se establezca en el propio PGOU –A.U.6 Hegoalde– será necesario elaborar dicho estudio con carácter previo a la aprobación definitiva del PGOU.

Por otra parte, las normas urbanísticas particulares de cada área o sector recogerán la zona acústica a la que pertenecen y los objetivos de calidad acústica aplicables. En el caso de incumplimiento de dichos objetivos, se deberá proceder a su declaración como Zona de Protección Acústica Especial (ZPAE).

EK\CV GAO-I-2019-06000

b. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak. Eremu batzuek partzelak inbentariatuta badituzte lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izateagatik, eremu horien hirigintzako arau partikularrek jaso beharko dute ingurumeneko organoak lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazio bat egin beharko duela 4/2015 Legearen, ekainaren 25ekoaren, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren 23. artikuluan xedatutako kasuetako baten bat gertatzen bada. Kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat duen edo izan duen lurzoru baten erabilera aldatzea aurreikusten den kasuetan –A.U.18- Fabrensa II– lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazioa egin beharko da partzelaren antolamendu xehatua jasotzen duen hirigintzako tresna behin betiko onartu baino lehen eta, ahal dela, prozeduraren hasierako faseetan.

c. Uholde arriskua. Lurzoruaren erabilerei buruzko arauak bete direla egiaztatu beharko da hala EAEko Ibaien eta Erreken Marjinak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak nola Kantauri Ekialdeko Demarkazioan ezarritako uholde arriskuaren mailaren arabera. Era berean, Alegiako eta Altzoko UAHErako (ES017-GIP-14-3) aurreikusitako uholde arriskua kudeatzeko Planeko jarduketak bete direla egiaztatu beharko da. Jarduketek ibilguaren erakundearen baimena nahitaez lortu beharko dute. Baimen hori Uraren Euskal Agentzian tramitatu beharko da eta ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira.

d. Jasangarritasun energetikoa. Aztertu egingo da 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoaren 7. artikuluan zehaztutako edukiak garatzen dituen jasangarritasun energetikoaren azterlan bat HAPOn jasotzeko aukera:

— Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetarako egokitzeko ebaluazioa.

— Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzeko ebaluazioa.

— Mugikortasunaren azterlana kontsumo energetikoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabilerarekiko alternatibak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasunik eza sustatzeko politikak barne.

— Kanpoko argiteria publikoaren azterlana, eremu publiko bakoitzerako argiztapen maila eta denbora optimoak ebaluatzeko.

Bestalde, 4/2019 Legearen, otsailaren 21ekoaren 7.5. artikuluak ezartzen du hirigintza tresnek aurreikusi egin beharko dituztela hiriguneetan erabilera publikoko birkargarako estazioak, ibilgailu elektrikoen eta erregai alternatiboek propultsatzen dituzten ibilgailuen erabiltzaileei energia hornidura bermatzeko, baita bizikletak erraz erabiltzeko eta aparkatzeko guneak ere.

Gainera, etxebizitzara bideratuko diren eraikin berriak, efizientzia energetikoari dagokionez, 4/2019 Legearen, otsailaren 21eko 43. artikuluak ezartzen dituen betebeharren mende daude.

— Eraikiko diren bizitegi eraikin berriei, betiere horiek ziurtagiri energetikoaren mende badaude, erregelamenduz zehazten diren gutxieneko kalifikazio irizpideak aplikatuko zaizkie.

— Hirigintza garapen berriek, alegia, gutxieneko eraikigarritasun bat gainditzen dutenek, bero sistemarako energia hornitzeko sistema zentralizatuak izango dituzte, eta lehentasuna emango zaie iturri berriztagarriei, baldin eta hori teknikoki eta ekonomikoki arrazoizkoa bada.

— Komunitateen aparkalekuetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen aurresistemak jarriko dira, baita bizikletak erabiltzea eta aparkatzea lagunduko duten guneak ere, erregelamenduz ezarriko baitira.

b. Suelos potencialmente contaminados. Las normas urbanísticas particulares de los ámbitos que cuenten con parcelas inventariadas por haber albergado actividades potencialmente contaminantes del suelo deberán recoger que, en el caso de que se dé alguno de los supuestos previstos en el artículo 23 de la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, deberá emitirse por el órgano ambiental la declaración de calidad del suelo. En los casos en los que se prevea un cambio de uso de un suelo que soporte o haya soportado una actividad o instalación potencialmente contaminante –A.U.18- Fabrensa II– la declaración de la calidad del suelo deberá emitirse con anterioridad a la aprobación definitiva del instrumento urbanístico que incluya la ordenación pormenorizada de la parcela y, preferentemente, en las fases iniciales del procedimiento.

c. Inundabilidad. Se debe acreditar el cumplimiento de las normas respecto a los usos del suelo en función del grado de inundabilidad que establecen tanto el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la CAPV, como el Plan Hidrológico de la Demarcación del Cantábrico Oriental, así como las actuaciones del Plan de gestión del riesgo de inundación previstas para el ARPSI de Alegia y Altzo (ES017-GIP-14-3). Las actuaciones deberán obtener la preceptiva autorización del organismo de cuenca, que deberá ser tramitada en la Agencia Vasca del Agua y cumplir con las condiciones que establezca la misma.

d. Sostenibilidad energética. Se estudiará la posibilidad de incorporar al PGOU un estudio de sostenibilidad energética que desarrolle los contenidos especificados en el artículo 7 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasco:

— Evaluación de la adaptación a las exigencias de sostenibilidad energética.

— Evaluación de la implantación de energías renovables en los edificios y las infraestructuras.

— Estudio de movilidad, a los efectos del consumo energético, incluyendo alternativas al uso del transporte privado y políticas de impulso de la movilidad no motorizada y la no movilidad.

— Estudio del alumbrado público exterior, a los efectos de evaluar los niveles y tiempos de iluminación óptimos para cada espacio público.

Por otra parte, el artículo 7.5 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, establece que los instrumentos urbanísticos deberán prever estaciones de recarga de uso público en los entornos urbanos para garantizar el suministro de energía a las personas usuarias de vehículos eléctricos y propulsados por combustibles alternativos, así como espacios para facilitar el uso y el aparcamiento de bicicletas.

Además, los edificios nuevos destinados a vivienda quedarán sujetos a las obligaciones que, respecto a la eficiencia energética, establece el artículo 43 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero:

— En los nuevos edificios residenciales que se vayan a construir, siempre que estos estén sometidos a certificación energética, se aplicarán los criterios de calificación mínima que se determinen reglamentariamente.

— Los nuevos desarrollos urbanísticos que superen un mínimo de edificabilidad física deberán prever sistemas centralizados de suministro energético de sistemas de calor, preferentemente a partir de fuentes renovables, siempre que ello fuera técnica y económicamente razonable.

— Equipar con presistemas de puntos de recarga de vehículo eléctrico los aparcamientos comunitarios, y de espacios para facilitar el uso y el aparcamiento de bicicletas, que reglamentariamente se determinen.

EK\CV GAO-I-2019-06000

e. Ingurumena leheneratzea eta leheneratze ekologikoa. Hirigintza jarduketak aurreikusten diren eremuek ingurumena eta paisaia leheneratzeko proiektu bat izan beharko dute, eta proiektu hori, hala dagokionean, urbanizazio proiektuan integratuko da. Leheneratzea birnaturalizazio irizpideetan oinarrituko da eta, ahal dela, naturan oinarritutako irtenbideak aplikatuko dira.

Halaber, gomendatzen da –erreferentziako dokumentuan adierazi bezala, HAPO ingurumena hobetzeko tresna izateko irizpidearekin bat– HAPOn sartzea udalerriko eremu degradatuak lehenaratzeko edo hobetzeko programa bat. Programa horretan identifikatu egingo dira leheneratu beharreko eremuak, horiek leheneratzeko egin beharreko jarduketak, kostu zenbatetsia eta programa gauzatzeko denborazko programazio bat.

f. Oria Garaiko KBE. Natura 2000 eremuko edo ondoko eremuetako hirigintzako arau partikularrek kontuan izan beharko dituzte KBE kontserbatzeko neurrien dokumentuan jasotako irizpideak, horietako batzuk dira hauek:

— Lehendik urbanizatutako eremuetan, sustatuko da ibilguaren eta urbanizazioaren arteko lur hondarretan gara daitezkeen erabilerak eta jarduerak toki horretako kontserbazio helburura bideratzea, eta helburu horiei ekarpena egiten dieten jarduketak bultzatuko dira.

— Hiriguneetako garapen berriko eremuetan sustatuko da nahitaez eta doan laga beharreko lurrak ibilguak Babesteko eremura bideratzea, eta urbanizazio karga gisa jaso ahal izango da ibaiertzak landareztatzea. Kasu hauetan, Babesteko eremua espazio libreen Sistema Orokortzat edo Tokikotzat jo ahal izango da, betiere ibaiko ekosistema kontserbatzeko eta/edo leheneratzeko bada.

— Era berean, sustatuko da hirigunetik pasatzen diren ibai tarteetan eta ibaiertzak okupatu direnetan, herria eta lurzoru industrialak berritzeko eta birgaitzeko planek jasoko dituztela ibaien marjinetan espazioa libre uzteko aurreikuspenak, hori egin daitekeen tarteetan ibaiertzak hobetzeko eta landareztatzeko.

Bestalde, HAPOren kartografian jaso beharko lirateke KBEren neurrien programa gauzatzea aurreikusten duten puntuak, hau da, ibaiertzak leheneratzeko, inbaditzaileak kentzeko eta antzekoetarako neurri zehatzak.

g. Eraikitzeko eta urbanizatzeko proiektuek jaso egin beharko dituzte ingurumen jasangarritasuneko eta klima aldaketa arintzeko eta egokitzeko irizpideak. Ildo horretan, alderdi hauek guztiak lortzeko ingurumeneko neurriak eta jardunbide egokiak jasoko dituzte:

— Jasangarritasun energetikoa. Eraikinak gehieneko efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien gehieneko aprobetxamendua lortzeko diseinatuko dira. Ahal den heinean, «ia kontsumorik gabeko» eraikinak lortuko dira, 2010/31/EB Europako Zuzentarauan, eraikinen efizientzia energetikoari buruzkoan, definitzen diren bezala. Halaber, helburua izango da ahalik eta gehien aurreztea argiteria publikoan.

— Eraikingintzan berriztagarriak ez diren lehengaien kontsumoa murriztuko da.

— Efizientzia nagusituko da uraren erabileran eta ur horniduraren eta saneamenduaren sistemetan.

— Gune publikoak eta garraiorako azpiegiturak birnaturalizatuko dira, eta helburua izango da naturan oinarritutako irtenbideak ematea, esaterako, hiriko parkeak, zoladura iragazkorrak, orubeak zaharberritzea, fatxada berdeak, etab.

— Lorategiak eta berdeguneak jasangarritasun irizpideekin diseinatu eta kudeatuko dira.

Neurriak eta jardunbide egokiak definitzeko, argitalpen hauetan deskribatutakoak kontuan hartuko dira:

e. Restauración ambiental y ecológica. Los ámbitos donde se prevean actuaciones urbanísticas deberán contar con un proyecto de restauración ambiental y paisajística que se integrará, en su caso, en el proyecto de urbanización. La restauración se basará en criterios de renaturalización y, siempre que sean posible, se aplicarán soluciones basadas en la naturaleza.

Así mismo, se recomienda –en consonancia con el criterio aportado en el documento de referencia de que PGOU constituya un instrumento de mejora ambiental– que el PGOU incorpore un programa de restauración o mejora ambiental de las áreas degradadas del municipio, que incluya la identificación de las áreas a restaurar, las actuaciones que se deben realizar para su restauración, el coste estimado y una programación temporal para su ejecución.

f. ZEC Alto Oria. Las normas urbanísticas particulares de los ámbitos incluidos o lindantes con el espacio natura 2000, deberán tener en cuenta los criterios recogidos en los documentos de medidas de conservación de la ZEC entre las que se encuentran las siguientes:

— En los ámbitos ya urbanizados, se propiciará que los usos y actividades que puedan desarrollarse en los terrenos remanentes entre el cauce y la urbanización se orienten a los objetivos de conservación del lugar, promoviendo las actuaciones que contribuyan a facilitar dichos objetivos.

— En los ámbitos de nuevo desarrollo de los núcleos urbanos se promoverá que los terrenos objeto de cesión obligatoria y gratuita se destinen al Área de Protección de los cauces, pudiendo contemplarse como carga de urbanización la revegetación de las riberas. En estos casos, el Área de Protección podrá tener la consideración de Sistema General o Local de espacios libres, siempre y cuando se destine a la conservación y/o restauración del ecosistema fluvial.

— Se promoverá asimismo que en los tramos de río que discurran por el núcleo urbano y en los que se ha producido la ocupación de las riberas, los planes destinados a la renovación y rehabilitación urbana y de los suelos industriales contengan previsiones para liberar espacio en las márgenes de los ríos, favoreciendo la mejora y la revegetación de las riberas en los tramos en que esto sea posible.

Por otra parte, conviene recoger en la cartografía del PGOU los puntos donde el programa de medidas de la ZEC prevea la ejecución de medidas concretas de restauración de riberas, eliminación de invasoras, etc.

g. Los proyectos de edificación y urbanización incorporarán criterios de sostenibilidad ambiental y de mitigación y adaptación al cambio climático. En este sentido, recogerán medidas y buenas prácticas ambientales orientadas a lograr:

— La sostenibilidad energética. Los edificios se diseñarán buscando la máxima eficiencia energética y el aprovechamiento de energías renovables. En la medida de lo posible, se tratará de lograr edificios de «consumo energético casi nulo», tal y como se definen en la Directiva europea 2010/31/UE, de eficiencia energética de los edificios. Así mismo, se buscará el máximo ahorro y eficiencia en el alumbrado público.

— La reducción del consumo de materias primas no renovables en la construcción y edificación.

— La eficiencia en el uso del agua y de los sistemas de abastecimiento y saneamiento.

— La renaturalización de espacios públicos e infraestructuras de transporte, buscando soluciones basadas en la naturaleza, como parques urbanos, pavimentos permeables, restauración de solares, fachadas verdes, etc.

— El diseño y gestión de jardines y espacios verdes con criterios de sostenibilidad.

Para la definición de las medidas y buenas prácticas, se considerarán las descritas en las siguientes publicaciones:

EK\CV GAO-I-2019-06000

— «Eraikuntza jasangarriaren gida EAErako» (Ihobe).

— «Irtenbide Naturalak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko» (Ihobe).

— «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» (Udalsarea 21).

Ingurumeneko neurri eta jardunbide egoki horiek urbanizazio ordenantzetan sartuko dira, hirigintzako arau orokorren 5. artikuluak ezarritakoaren arabera, Plan Orokorraren garapenean onartuko direnak.

2. Ingurumeneko azterlan estrategikoak ingurumena gainbegiratzeko eta zaintzeko programa osatu beharko du, eta segimendurako eginkizunen aurrekontua eta adierazleak kalkulatzeko eta ebaluatzeko erantzukizunak adieraziko dira.

3. 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, ingurumen ebaluazioari buruzkoaren arabera, A.U.18-Fabrensa II eremuaren antolamendu xehatua ezartzen duen hiri antolamenduaren plan bereziari eta A.U.19-Franconi eremuaren antolamendu xehatua ezartzen duen plan partzialari ingurumeneko ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura bat egin beharko zaie. Azkenekoaren kasuan, plan partzialaren bidez onartutako antolamenduak azalera artifizializatua murriztu beharko du, eta lurzoruaren funtzio gehienak mantenduko ditu. Halaber, ibaiertzeko basoari era negatiboan eragitea saihestuko da eta, ahal bada, hemen garatzen diren jarduketek galeria basoaren leheneratze ekologikoa jasoko dute.

*Laugarrena.* 211/2012 Dekretuaren, planen eta programen ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenaren arabera, Udalak kontuan izan behar du, HAPO onetsi ondoren, jakinarazpen hauek egin beharko dizkiola GFAren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari:

— Dekretu horretako 15. artikuluan jasotako dokumentazioa bere eskura jarri dela baliabide elektronikoen bidez.

— Baldin eta HAPOren segimendu programa martxan jartzearen ondorioz, egindako ingurumen inpaktuaren ebaluazio estrategikoan aurreikusi ez diren ondorio kaltegarriak detektatzen badira, horiek arintzeko proposatutako neurriak adieraziko dira, dekretu horretako 16. artikulua betez.

*Bosgarrena.* Ingurumeneko Adierazpen Estrategiko honek bere indarraldia galduko du eta dagozkion ondorioak sortzeari utziko dio baldin eta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, plana edo programa ez bada onesten bi urteko gehieneko epean, argitaratzen denetik.

*Seigarrena.* Agintzea Ingurumeneko Adierazpen Estrategiko hau argitara dadila Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Zuzendaritza honen webgunean.

Donostia, 2019ko irailaren 20a.—José Ignacio Asensio Bazterra, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatua.
(6000)

— «Guía de Edificación sostenible para la vivienda en la CAPV» (Ihobe).

— «Soluciones Naturales para la adaptación al cambio climático en el ámbito local de la CAPV» (Ihobe).

— «Manual para el diseño de jardines y zonas verdes sostenibles» (Udalsarea 21).

Dichas medidas y buenas prácticas ambientales se incorporarán a las ordenanzas de urbanización que, según establece el artículo 5 de las normas urbanísticas generales, se aproarán en desarrollo del Plan General.

2. El estudio ambiental estratégico deberá completar el programa de supervisión o vigilancia ambiental, con indicación del presupuesto de las tareas de seguimiento y responsabilidades de cálculo y evaluación de los indicadores.

3. Conforme a la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el plan especial de ordenación urbana que establezca la ordenación pormenorizada de A.U.18-Fabrensa II, así como el plan parcial que establezca la ordenación pormenorizada de A.U.19-Franconi deberán someterse a un procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada. En el caso de esta última, la ordenación adoptada a través del plan parcial deberá procurar reducir la superficie artificializada, manteniendo el máximo de las funciones del suelo. Así mismo, se evitará afectar negativamente al bosque de ribera y, de ser posible, se procurará que las actuaciones que se desarrollen aquí incluyan la restauración ecológica del bosque de galería.

*Cuarto.* De acuerdo con el Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, el Ayuntamiento debe tener en cuenta que, una vez aprobado el PGOU, está obligado a realizar las siguientes notificaciones a la Dirección General de Medio Ambiente de la DFG:

— La disponibilidad por medios electrónicos de la documentación contemplada en el artículo 15 de dicho Decreto.

— Si como consecuencia de la puesta en marcha del programa de seguimiento del PGOU se detectaran efectos adversos no previstos en la evaluación de impacto ambiental estratégica realizada, las medidas propuestas para su minimización en cumplimiento del artículo 16 de dicho decreto.

*Quinto.* Esta Declaración Ambiental Estratégica perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, no se hubiera procedido a la adopción o aprobación del plan o programa en el plazo máximo de dos años desde su publicación.

*Sexto.* Ordenar la publicación de esta Declaración Ambiental Estratégica en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web de esta Dirección.

San Sebastián, a 20 de septiembre de 2019.—El diputado foral de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, José Ignacio Asensio Bazterra.
(6000)